

2021
URTEKARIA




altzaporru

EUSKAL HERRIKO TRIKITXA ELKARTEA

2021

URTEKARIA



altzaporrU
ALTZAPORRU

EUSKAL HERRIKO
TRIKITIXA ELKARTEA

Harpidedunentzat doako alea

Erredakzioa

Irune Elizagoien

Koordinazioa eta ekoizpena:

Andoitz Antzizar

Diseinua eta maketazioa:

Antza S.A.L.

Inprimaketa:

Antza S.A.L.

Lege gordailua:

D 01362-2020

Euskal Herriko Trikitixa Elkarte
Enparan kalea 18
20730 Azpeitia
Gipuzkoa
Tel.: 943832828

Emaila:

trikitixa@trikitixa.eus

Webgunea:

www.trikitixa.eus



NEGUA

- 5 Albisteak
- 10 Galbahea
- 11 Atzera begira
- 11 Argitalpen berriak

UDABERRIA

- 13 Albisteak
- 14 Iritzi artikulua
- 15 Galbahea
- 16 Argitalpen berriak

UDA

- 17 Albisteak
- 18 Galbahea
- 18 Argitalpen berriak
- 19 Elkarrizketa

UDAZKENA

- 23 Albisteak
- 25 Galbahea
- 26 Argitalpen berriak

Joan zaigu 2021a. Euskal Herriko Trikitixa Elkar-tearentzat ez da nolanahiko urtea izan hala ere. Berrikuntzekin hasi dugu, esku artean daukazun urtekari honen lehen alea, *Altzaporru! 2020ko urtekaria*, bazkide garenok jaso dugunetik. Eta berrikuntzekin jarraitu dugu, orri hauetan aurkituko duzun moduan.

Trikitixaren mundutxoa ez da geldirik egon nahiz eta traba ugari izan ditugun gure egunerokoan. Hain zuzen ere, trikitixaren arrakasta etengabe eraldaketan egoteak ekartzen du, etengabeko eguneraketa prozesuan egoteak; nondik gatozen argi edukita norabide zuzenaren bila gabiltza beti. Eta urte oparoa izan da hau irakurriko duzunez, egokitzen, proposatzen, zirikatzen dakien gizataldea baikara erakutsi izan dugun moduan.

Usurbilen 1972 lehen aldiz trikitilari talde bat elkartu zenetik, berrogeitamar urte berandua-go, haiek landatutako haziak zuhaitz sendo bat eman du, eta kimu berriak loratzen doaz.

2022ak zer ekarriko duenaren zain gaude dagoeneko, EHTerentzat eta, trikitilariantzat eta trikiti zaleentzat urte oso berezia datorrigu eta. Baina bitartean, pasa den 2021ak eman dizkigun albiste, elkarrizketa edo eta berrikuntzen errepasoa egitera gonbidatzen zaitugu, trikitixaz goatzera gonbidatzen zaitugu.

Altzaporru!

Euskal Herriko Trikitixa Elkarte

NEGUA



Eten barik joten dokumentalaren estreinaldia

📍 Hernani

🕒 Abenduak 21

Panderoa, musika instrumentu sinple eta oinarrizko gisa aurkezten du dokumentalak. Emakume pandero-jole, soinu-jole, bertsolari, kirolari eta idazleen testigantzen bidez, instrumentu honek Euskal Herriko historia garaikidean izan duen papera ezagutaraztera ematen da. Lan honetan azaltzen dira, besteak beste, Rakel Pujana, Nati Bilbao, Edurtzeta Ania, Uxue Amonarriz, Josune Arakistain, Maixa Lizarribar, Kristina Solano, Mamen Garate Maltzeta eta Ane Muñoa.



Eten barik joten dokumentala

Arizterrazuko 2020-2021 denboraldia

📍 Aia

🕒 Urtarrilak 6

Errege egunarekin hasi da Arizterrazuko 2020-2021 erromeria denboraldia. Egoerak horrela behartuta, online gauzatu da Arizterrazu Zuzenean Facebook orrialdean. Hamabostetik behin, erromeria zuzenean jarraitzeko aukera izan dute zaleek ekainaren bukaerara arte. Ekainaren 27an, 17 trikitilari bikotek eskainitako 3 ordu eta erdiko saioarekin borobildu da sasoi. Andatza Erromeria Elkartearen eta Aiako Udalaren laguntzarekin, eta, trikitilari eta pandero-joleen borondateari esker, igandeko erromeriaren ohiturari eustea lortu da. 2021-2022 denboraldia berriz, Arizterrazun bertan hasi da. Osasun egoerak hobera egin duenez, soinu-joleak Arizterrazuko plazan bertan hasi dira erromeriak eskaintzen. Azaroaren 1ean hasi da Izer eta Alabierren erromeriarekin eta plaza jendez lepo bete da.



Arizterrazu zuzenean grabaketa

Lau urteko geldialdiaren ondoren, Emon taldearen itzulera

📍 Bergara

🕒 Urtarrila

2007an sortu zen Emon talde bergararra, eta 2016an, Argentinako Necochea hiriko kontzertuen ondoren iragarri zuten 2021a arte iraunduen etenaldia. Ibilbide luzeko taldea da, kontzertu asko emateaz gain, diskoak ere argitaratu dituzte. 2010ean, *Piztu herria*, ska eta rockaren arteko diskoarekin egin zuten debuta. Ondoren, doinu latinoagoetara jo, eta *Konfeti kolore* bigarren diskoa kaleratu zuten, 2013an. 2014an, *Sua* lana argitaratu zuten, baita Gipuzkoako Ikastolen Jaialdirako Demasa kantua ere. Aurten, ilusioarekin zapaldu du oholtza Aritz Alustiza soinu-jole bergararraren taldeak, eta ongi etorria ospatzeko *Aurkitu zaitut* kantu berria aurkeztu dute, plataforma digital guztietan eskuragarri dagoena.



Armoniaren Soinu Txikia ikastaroa Aitor Furundarenaren eskutik

📍 Orereta

🕒 Otsailak 6

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolatuta, Aitor Furundarena Usabiagaren eskutik, Oreretan izan da ikastaroa, otsailaren lehenengo asteburuan. “Zer da armonia?”, “zer dira akordeak?”, “nola lotzen da armonia melodiara?”, “nola ekarri hori soinu txikira?”. Galdera hauek guztiak erantzun eta askoz gehiago ikasteko aukera izan dute Euskal Herri osotik bertaraturako 20 bat lagunek.

Mentxu Alkorta Arzak soinu-jolea zendu da

📍 Lizarra

🕒 Urtarrilak 24

Mentxu Alkorta Artzak soinu-jolea (1947-2021), urtarrilaren 24an zendu da, 73 urterekin. Donostiarra izatez baina Nafarroan errotu eta Azkonan bizi zen.

Alkortari familiatik zetorkion trikitiarekiko lotura, amaren aita soinu-jolea baitzen. Trikitia jotzeko gogoa piztu zitzaionean gogoratu zen aitonen soinuaz, baina osabak Venezuelara eramana zuen. Felix Ibargutxik ezagutzera eman zuenez, Alkortak itsasoa zeharkatu eta osabari soinua eskatu zion, baina hark ez zion eman, bere seme-alabentzat gorde nahi zuelako. Azkenean, Alkortaren ama joan zen Venezuelara osabari soinua eskatzera, eta lortu zuen.

Mentxu, Gema Sistiagarekin aritu zen urtetan, oholtzetan baino gehiago, festa giroan eta lagun artean jardun zuten lehenengoetako emakumezko trikiti bikotea osatuz. Mentxuk eta Gemak, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak 2012an argitaratutako Faborez 5+1 diskoan parte hartu zuten, garai bateko pieza zaharrak berreskuratuz.

Musika baliatuz egin zuen plazaz plazako bidea, baita antzerki eta kale antzerkirako jautzia: Kiki, Moko, Koko eta Flax pailazo taldea sortu zuen. Musika eta trikiti munduaz gain, dantza klasikoan eta garaikidean ere formatu zen eta dantza irakasle ere aritua zen.



Mentxu Alkorta Arzak



Argazkia: Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak

Nafarroako VII. Trikiti jaialdia, urtarrileko hitzordua

📍 Altsasu

🕒 Urtarrilak 30

Nafarroako Trikitixa Elkarteak antolatuta, urtarrilaren 30ean ospatu da Nafarroako VII. Trikiti jaialdia. Neomak, Estangatarrak, Roberto Etxebarria eta Eusebio Mayalde, Monik Valor eta Eider Iraola, Eingo taldea, Ander eta Xabi Malbadi, eta Enrique Zelaia izan dira zazpigarren edizio honetako protagonistak. Pandemia beteko garaian, segurtasun neurriak betez, aretoaren edukiera erdia bakarrik betetzeko aukera izan da, eta mugikortasun murrizketak direla eta, ikusleak Nafarroakoak bertakoak. Antolatzaileek, aspaldian oholtza gainean aritu gabeko parte-hartzaileek eskaintako doinuekin gozarazi nahi izan dituzte bertaratutakoak eta baita Euskal Telebistaren bitartez saioa jarraitu dutenak ere.



Argazkiak: Ibon Errazu

Poxpi musikaria zendu da

📍 Azkoitia

🕒 Otsailak 26

Otsailaren 26ean zendu da Cruz Maria Alberdi Alberdi *Poxpi*. Azkoitian, arlo askotan lagundu duen musikaria da Poxpi. Tronpetarekin, saxofoiarekin eta azken urteetan dultzainarekin, trikitiaren inguruan ibili da; bai ezkontza, festa, erromeri eta bestelakoetan.

Nahiz eta trikitilariak ez izan, Urola erdiko trikitilarien familiako sentitu da, eta trikitilari eta dultzaineroek agur berezia eskaini diote bere hiletan.



Argazkiak: Ibon Errazu eta artxibokoa

Hauspo Artean irratsaioaren ibilbide berria

📍 Tolosa

🕒 Otsailak 27

Trikiti doinuez gozatzeko aukera izan ohi da Ataria Irratian larunbat goizetan. Azken urteetan soinu txikiaren inguruan gehiago sakontzeko, historia ezagutzeko, berrietasunak entzuteko edota soinu-joleei ahotsa emateko, Hauspo Artean saioa eskaini da. Otsailaren 27an hasi zen denboraldi berria, gidari berriekin; Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiaren lekukoa hartu baitute Maixa Lizarribarrek eta Manex Torrealdaik. Garbi dute ez direla kazetariak, soinu-joleak dira, eta helburua trikitilariak herritarrengana gerturatzea izan da. Solasaldi baten modura planteatu dute saioa eta hainbat gonbidatu izan dituzte; tartean, Itsaso Elizagoien, Leire Zumeta, Iker Allur, Iosu Arrizabalaga *Izer* eta Garazi Otaegi.



Argazkia: Iñigo Terradillos (Tolosaldeko Ataria)

Euskal kulturari, eta bereziki trikitixari, berezkoa zaion hibridazioaren azterketa EHUko ikerketa batean

📍 Gasteiz

🕒 Martxoak 1

UPV/EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia saileko ikerketa batek trikitixaren historian eta bilakaeran sakondu du, euskal kulturari berezkoa zaion hibridazioa aztertzeko.

XIX. mendean etorri zen Euskal Herrira soinu txikia. Ordura arte ermitetako erromerietan alboka eta panderoa erabiltzen ziren. Soinu txikia iritsi zenean, hasieran panderoari lagunduz sartu bazen ere, segituan hartu zuen

protagonismoa Gipuzkoako eta Bizkaiko biztanleria landatar euskaradunen artean, eta benetan esanguratsua da lortu duen transmisio maila. Tradizioa eta modernitatearen arteko tentsioa oso ondo irudikatzeaz gain, iragana-geroa edo lokala-globalaren arteko adibide garbiak eskaintzen dituen adierazpen musikala da, eta horregatik ekin zion Gurutze Lasa Zuzuarregui ikertzaileak trikitixaren hibridazioa aztertzeari. Eremu geogra-

San Jose Trikiti Jaialdia, San Jose egunaren biharamunean

📍 Azpeitia

🕒 Martxoak 20

San Jose Trikiti Jaialdiaren XXXI. edizioak bere ohiko data berreskuratu du. Lurdes Alkorta eta Mailu Sudupe, Araitx Etxaniz eta Elaia Diez, Alaitz Roteta eta Ainara Saizar, Irma Karrera eta Amets Arteaga, Fan&Go taldea, Lidia Irigoien eta Leire Astiasaran, eta Xabi Solano, Kristina Solano eta Txus Aranburu igo dira So-reasuko oholtzara, egoera berrira moldatutako jaialdian, bi saio eskaintzera. Aurtengo edizioan lan taldeak gogora ekarri du orain dela 50 urte, Mailu Sudupe Egurrolak Euskal Herriko Trikiti Txapelketan parte hartu izana. Gainera, txapelketa nagusian parte hartu zuen lehen emakumea izan zen, Primi Erostarbarekin batera. Lan taldeak ahalegin berezia egin du emakume soinu-joleak eta pandero-joleak jaialdira ekartzeko eta gustura gelditu dira emaitzarekin.



Argazkiak: Ibon Errazu

fikoari dagokionez, Gipuzkoan, Bizkaian eta, preseski egindako landa-lanaren bidez, Nafarroan, Araban eta Iparraldean trikitixak izan duen bilakaera historikoa aztertu du; baita bilakaera horretan emakumeek izan duten papera, lekua eta problematika ere.

Ikerketa hau Gurutze Lasa Zuzuarreguiaren (Aduna, 1978) doktore-tesiaren barnean egin da. Doktore-tesiaren izenburua *Euskal kulturaren hibridazio prozesuak: trikitixaren kasuaren azterketa* da. UPV/EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saileko Mari Jose Olaziregi Alustiza irakaslea eta Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia saileko Pio Perez Aldasoro irakasleak izan ditu zuzendari. UPV/EHUren Mikel Laboa katedraren bekarekin egin du ikerketa.



Gurutze Lasa



MAIXA LIZARRIBAR, GEMA SISTIAGA eta JULENE OTEGI

Gema aurreneko emakume lehendakaria izan da Euskal Herriko Trikitixa Elkartean. «Kultura mailan arrakasta handia duen trikitixa munduak zerbait gehiago behar zuenez, 10 urtez lehendakari lanetan ibili nintzen». Mentxu Alkortarekin bikotea sortu eta kalea izan dute jotzeko gustuko lekua. Beraiek zabaldutako bidean jarraitu dute gerora, beste hainbat emakume pandero-jolek. Maixak bere ikasleei behin eta berriz esan die «Bikote batean agintzen duena pandero-jolea da, eta ni ere horrela sentitzen naiz, agintzen dudala». Julenek bat egiten du Maixaren hitzekin, baina pandero-jolea izatea, familia bat sortzeko bidea ere badela uste du: «Musikaz gozatzeko bide bat da, bizipoza jaso eta transmititzeko bidea ere bada, eta baita familia bat sortzeko bidea ere, pandero-joleen artean deskribatzeko zaila den binkulo bat sortzen da eta horrekin familia bat sortzeko bidea ahalbidetzen da».

Euskadi irratia, Faktoria 2021/01/05

AGUS BARANDIARAN

Nola ikusten duzu trikiti mundua?

«Osasuntsu. 1970eko hamarkadan, trikitia zaharren eta baserritarren gauzatzen hartzen zen, baina, orain, oso normalizatuta dago. Hala ere, nolabait, bere nortasuna galdu duela iruditzen zait. Orain, beste instrumentu bat balitz bezala hartzen da, baina uste dut beharrezkoa dela instrumentu horrenganako maitasuna eta grina transmititzea».

Berria.eus 2021/01/07

XABIER MALBADI

Xabierrek soinua trikiti bidez ikasi izan du umetatik, aitzak horrela erakusten ziolako: Soinua eta trikitia ezberdindu nahi izan ditu berak. «Adituek diote panderoak ateratzen duen hotsaren onomatopeia dela trikitia hitza; hortaz, hasiera batean, panderoarekin sortzen den musika estilo horri erreferentzia egiteko erabiltzen zen trikitia. Gure etxean, hala ere, betidanik soinua deitu izan diogu instrumentuari». Orain ordea, trikiti doinuetatik aldendutako lana aurkeztu du: *Zero*. «Soinua dominatzen

hasi nintzenean, trikiti doinuak ez bestelako musika aukeratu nuen, kanta bereziagoak». Bere lehen diskoan, Mozart eta Bachen pieza bana edota Super Mario Brosen abestia grabatu ditu.

Gipuzkoako Hitza 2021/01/08

ARITZ ALUSTIZA eta LEIRE ETXEZARRETA

Aramaioko trikiti eskolak Musika Etxean emango ditu klaseak aurrerantzean, eta horrek aukerak zabaltu dizkiela adierazi dute bertako irakasleek. Aritz Alustiza bergararra da azken urteetan trikiti irakaslea, Aramaion. «Aurten go ikasturtean, pandemiaren ondorioz hainbat segurtasun neurri hartu behar izan ditugu: gela desinfektatu, aireztatu... Hala ere, klaseko dinamikari ez dio askorik eragin. Izan ere, eskolak bakarka ematen ditugu. Ikasle gehienak helduak dira eta erronkak izan beharko luke ume gehiago erakartzea, etorkizuneko trikitilariak izan ditzagun». Bestelako egoera dauka Leire Etxezarreta Arrasateko pandero irakaslea. «40 bat lagun ditugu panderoa ikasten; horietatik asko umeak dira. Taldeka entseatzten dugu, edukiera zainduz eta distantziak gordez».

Goiena.eus 2021/01/22

PATXI eta IRUNE AGIRRE

Duela 30 urte inguru, Patxi Agirre arbizuarrak, herrian trikitixa eskola jartzearen alde egin zuen. Arbizu eta inguruan ikasleak bazirenez, Billabonara joan zen Martinen musika etxera, irakasle bila. «Eskola egin nahi genuela komentatu nion, eta bertan ikasten ari zen hamasei edo hamazazpi urteko Asier Gozategi delako bat klaseak emateko prest zegoela esan zidan». Iruñe, Patxiren alaba aritzen da gaur egun, bere aitak martxan jarritako eskolan trikitixa klaseak ematen. «Hasi ginenean denak haurrak ginen. Orain, ez dago adinik. Hor aldaketa egon da. Klasean 7 urteko haur bat izan dezakezu, edo 70 urteko heldu bat. Guztiok elkarrekin arazorik gabe ateratzen gara. Helburu bera dugulako. (...) Trikitixa eta panderoa beti lotuta joan dira, baina orain beste instrumentu bat bezala hartzen da trikitia, eta beste instrumentu batzuekin uztartzen da ere. Ez panderoarekin bakarrik. Zabaltu da».

Guaixe.eus 2021/01/26

XABIER BERASALUZE “LETURIA”

Nola iritsi zen panderoa Euskal Herrira?

Trenbidea eraiki zuten langileek ekarri zuten eta itsasotik ere iritsi zen, trikitia eta akordeoia bezala. Batez ere herri txikietan eta baserri giroan zabaldu zen, gutxiago herri handietan. Trikitiari laguntzen hasi zen eta kantua garrantzia hartzen joan zen. Hasieran emakumeak ziren pandero jotzaileak: Bizkaian Maurizia Aldeiturriaga, Araotzeko Primi Erostarbe... Trikitiari infernuko hauspoa deitzen bazioten apaizek, panderoari deabruaren koroia esaten zioten. Hurrengo pausoa perkusio mundura sartzea izan behar du, talde desberdin askorekin batera erabiltzen delako.

Tolosaldeko Ataria 2021/02/21

MAILU SUDUPE EGURROLA

1971n, II. Euskal Herriko Trikitilari Txapelketan, aurreneko aldiz jo zenuen panderoa. 13 urte zenituen orduan. Txapelketa batean parte hartzen aurreneko emakume trikitilariak izan zineten zu eta Primi Erostarbe oñatiarra.

Detalle edo datu hori nik ez neukan gogoan. Trikigiro elkartekoek esan zidaten hori; ni nintzela txapelketa batean parte hartu nuen lehen emakumea. Datu horri erreparatuta, nahi izan dute nik San Jose trikiti jaialdian parte hartzea; hala azaldu zidaten behintzat. Ilusioa egin zidan horrek guztiak. Akordatzan nintzen neska koskorra nintzela anaiarekin jo nuela Donostiako Trinitate Plazan. Zein urtetan izan zen hura ahaztuta neukan, ordea.

Maxixatzen 2021/03/16

atxera begira



ATXERA BEGIRA!

URTARRILA

100 urte bete dira *Kataolatza* soinu-jolea jaio zenetik



1921eko urtarrilaren 2an jaio zen Jose Kruzelegi Arozena Kataolatza soinu-jole elgoibartarra. Azkarate aspiko Parapan baserrian bizitu zen, ezkondu ezkerotik. 16 urte zituela aitak bost duro ordaindutako soinu bat ekarri zion eta harekin hasi zen. Kataolatza ez zuen maisurik izan, Sakabik zertxobait lagundu bazion ere, belarri onekoa izanik, bere kasa ikasi zuen. Makina bat erromeria egin zituen ondorengo urteetan; Larraskandan, Kurutzetan, Hirukurutzetan, Madarixan, Martiten, Pol-Polen, Iturriotzen, Oinatzen eta beste leku askotan. Madarixan eduki zuen plaza eta jaiero bertan jotzen zuen. Erromerietan sarri Juliana Zubizarreta pandero-jolearekin ibili zen eta txapelketetan ere parte hartu zuen. Noizean behin, Juliana Esnaola, Manuel Sudupe Gelatxoren emazteak ere, panderoz lagundu zuen. 82 urterekin hil zen, 2004ko irailaren 6an.



ARGITALPEN BERRIAK

DISKO BERRIA

Iñaki Palacios. *Baltik*

Folk eta new/trad estiloko 9 abesti biltzen dituen diskoa da *Baltik*. 2020 bukaeran grabatu zuten eta otsailean atera da kalera. Hainbat musikaririk hartu dute parte diskoan: Javi Garai (gitarra akustikoa, banjoa, gitarra elektrikoa), Xabi Otxagabia (biolina), Eneko Espino (baxua), Errando Lopez de Luzuriaga (soinu txikia), Iñaki Alarcia (Bodhran, Bateria), Alan Doherty (whistle), AMAK (ahotsa) eta Iñaki Palacios (txistua). Diskoaren aurkezpen kontzertuak Gasteizko Ur biltegian, Gasteizko Jaietan, Bilboko Euskaldunak, Amurrioko Aitzina Folken eta beste hainbat lekutan egin dituzte.







Xabi Aburruzaga *Artistas en Ruta* zirkuituan eta ibilaldiko kantuen protagonista

AIE erakundeak (Entidad de Gestión de los Artistas Intérpretes o Ejecutantes de la música) antolatzen duen *Artistas en Ruta* espainiar estatuko zirkuituak 2021. urtean zuzeneko kontzertuak eskaintzekolau euskal talde aukeratu dituzte: Olatz Salvador, Xabi Aburruzaga, Liher eta Zetak. Proiektu honen helburua talentu berria publikoari hurbiltzea da. Gaur egun ezagunak diren hainbat talde edo bakarlari *Artistas en Ruta* programan parte hartutakoak dira; Anita Parker, Ekiza, La Furia, Nøgen, eta Kepa Junkera, besteak beste.

Zuzeneko musika espainiar estatuan sustatzeko xedea duen programa da *Artistas en Ruta*, eta helburu hori betetzeko zuzeneko emanaldiak antolatzen dituzte musika aretoekin elkarlanean, hainbat hilabete irauten duen zirkuituetan. Musika industriako kazetari eta adituek egiten dute aukeraketa, guztira hemeretzi talde edo bakarlari aukeratzen dituzte. Etxepare Euskal Institutuak AIErekin duen hitzarmenari esker, euskal musikarien presentzia beti bermatua dago. Aurten adibidez hemeretzitik lau euskaldunak izan dira.

Urtea borobilduz, Bizkaiko ikastolen festa handia den Ibilaldirako *Kalakalata!* kantua sortu du Aburruzagak. Xabi Paya bertsolariaren hitzak, hainbat aktore ezagunek abestu dituzte; hala nola Itziar Ituñok, Iholdi Beristainek eta Aiora Renteriak.



Xabi Aburruzaga

Etxepare Euskal Institutuaren saria Korrontzirentzat

📍 Miarritze

🕒 Maiatzak 19

Musika Bulegoa sarien bosgarren edizioa ospatu da Miarritzen. Iazko uztako zenbait lan nabarmendu ditu Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkarteak, tartean Korrontzirena. Etxepare Euskal Institutuaren saria jaso du taldeak, nazioartera zabaltzeko egiten duen lana go-raipatuz. Korrontzi folk musikaren munduan erreferente bat bihurtu dela nabarmendu dute, Euskal Herrian eta nazioartean.



Urteurrenaren tamainako omenaldia Zumarragako Trikitixari

📍 Zumarraga

🕒 Ekainak 19

Ehun urtetik gorako ibilbidea osatu du Zumarragako Trikitixak eta urteurrenaren tamainako omenaldia egin zaio Zumarragako Zelai Arizti kulturgunean. Laja eta Lutxurdiok, Gariokitz Lizarraga eta Iñaki Larrañagak, Xabier Etxaniz eta Ainara Saizarrek, Xabi Aburruzagak eta Ikigaik, eta Amak taldeek parte hartu dute emanaldian. Saioaren bukaeran, trikitilari guztiak elkartu dira, Zumarragako Trikitixaren kalejira bat jotzeko. Ekitaldia borobiltzeko, omenaldia egin diete Zumarragako Trikitixako kideei. Mikel Alustizak ezin izan zuen ekitaldian egon, baina Seberen, Inixio, Miguel eta Kepa Urteagak udalaren izenean oroigarri bana jaso zuten eta haiek ere pieza bat jo zuten.



Zumarragako Trikitixa omenaldia

IRITZI ARTIKULUA

IRATI ARANGUREN ARRIZABALAGA



Ireki nuen armairua egunero lez, hantxe zeuden zapata pare denak elkarren ondoan-txukun-txukun jarrita. Puntak paretari so eta orpoak neure bistan. Batzuk distiratsu, besteak ez gure amak nahiko lukeen bezain garbi, eta bakarren bat zakarretara botatzeko moduan. Eguneroko argazkia nuen hura, baina egun hartan zerbaitek ileak puntan jarri zizkidan. Nire asteburueta zapatek beti izan dute orpopeko zola okerra. Baina azken pare bat urteetan erositakoen azpiek zuzen zuzenak zirautela ikusi nuen. Di-da bete zitzaidan barrera sentimenduz, melankoliaz, itxaropenez; Zenbat denbora asteburueta oinetakoekin dantzanegin gabe? Zapatekin ez, baina iazko udan izan nuen abarketa zuriekin dantzatzeko aukera. A zer plazer! Ekitaldi hura amaituta, barrera bete bete

nuela, han hasi nintzen alpargatak askatzen. Ederra sorpresa! Eskuinekoa zuri gorria zen! Eta ezkerrekoa ere bai, ene! Eskueta hatzak ere zartatuta nituen! Ahaztuta nengoen kriskitinak jo eta jo etendurak egitea zer zen! Brrr! Ziur nengoen gure Covid lagunak nire osasunean inolako ondoriorik ez zuela utzi, baina oker nengoen, antza! Kontuak kontu, gaur itxaropentsu nator, hasi baikara zapata dotoreen zolak harrotzen. Dantzari eta musikariok hasi ditugu buruz buruko partidak. Elkarren armonian gozo aritzen badakigu, baina harro itzuli gara eta hala diogu begitara begira: “nork iraungo din/k gehiago, hik ala nik?”. Hauspoa irrintzika eta gu ere halatsu. Negua hotz iritsi zaigu, baina plazak bero dau, pil-pilean. Hankak urratu eta behatzak zartatu arren jarrai dezagula lau haizetara zabal-tzen herri nortasun honen esentzia.



ANDOITZ ANTZIZAR

Triki zer? Zer da hori?

Galdera oso zabala da. Triki horren atzean gordez dena ez delako bakarrik instrumentua. Gaur egun, trikitia entzun eta soinua ikusten dugu, baina trikitiaren atzean hori baino askoz gehiago dago: dantza, kantua, bertsoa, musika... Triki horren atzean gordetzen da euskal kultur adierazpen artistiko baten unibertso oso bat. (...) Eta trikitia hobeto saldu beharra daukagu; gaizki saltzen dugu, oso gaizki saltzen dugu. Konturatu zaitetz trikitia munduan zehar badabilela. Eta trikitia diodanean, diot soinu txikia, panderoa, dantza, kantua... guztia bilduta. Formatu hori guztia dabil munduan, eta euskaraz dabil munduan. Horri baliola eman behar diogu, eta ez dugu egiten.

Berria 2021/03/25

KRISTINA SOLANO

Lauak zarete emakumeak, musikariak eta amak. Indartsu sentitzen al zarete oholza gainean?

Bestearen babesa asko nabaritzen dugu. Adinarekin ere indartsuagoa egiten zara oholztan. Gazteagoak ginenean kezka eta ardura gehiago izaten genituen, ea jendeak zer pentsatuko zuen edo... auskalo! Orain, berriz, geure buruari esaten diogu: Nahi duguna egingo dugu, gustatzen zaiguna!

Kronika.eus (Ereñotzu) 2021/04/17

ADOLFO JAINAGA

Gauzak asko aldatu dira 30 urteotan?

Orain dela 30 edo 40 urte, soinua beste patxada batekin ikasten zen. Orain, umeak ohituta dauke estimulu asko jasotzera. Gauza larregi ikasten dituzte batera, eta nahi izaten dute informazio bizkorra. Interpretatzeko unean ere arin eta bizkor aterako diren gauzak nahi dituzte. Bestalde, metodologia aldetik aurrera egin da, nire ustez. Lehen, aurrez aurreko eskolak ziren eta zenbaki bidezko metodoa bakarrik zegoen. Gaur egun, solfeoa sartu da, soinua musika eskoletan da... Guk, esaterako, duela 30 urte atera genuen metodoa, eta horrekin dihardugu, baina badaude beste metodo batzuk eta beste irakasle batzuk. Esango nuke horrek ere hobetu egin duela irakaskuntza. Eta badaude egungo multimedia baliabideak, eta horiek ematen dituzten aukera guztiak. Azkartu eta hobetu egin da irakaskuntza.

Goiena.eus 2021/04/26

LEIRE ZUMETA

Zer tonotan gustatzen zaizu kantak jotzea?

Trikiti askorekin ikusten gaituztenean, ez ditugu ateratzen zenbat ditugun erakusteko, tonoz aldatzeko baizik. Kristina Solanok behin esan zidan: «Oraindik gaztea zara eta bizi-biziak gustatzen zaizkizu, baina ikusiko duzu adin bat duzunean Sol-ekoak nola gustatuko zaizkizun». Buruan grabatuta daukat eta horrelaxe izan da.

Tolosaldeko Ataria 2021/05/22

AMETS ORMAETXEA

Lehiatik ezagutzen duzue elkar, baina kolektibora egin duzue jauzi. Zazpiok emakumeak, eta gazteak.

Txapelketetan ibili gara, baina gure artean ez da egon lehiakortasunik; lagunak ginen. Gero, Kepak elkartu gintuen momentutik, gure artean sekulako konplizitatea egon da. Ordutik, konexio berezi bat dago gure artean, eta familia txiki bat osatu dugu. (...) Garaiak aldatu egin dira, nik uste, eta gaur egungo egoera ez da duela 50 urteko egoera bera. Jende askok esan digu, eta egia da, bistara oso indartsua dela zazpi emakume taularatzea, gainera trikitiaren munduan urteetan ibili ondoren. Baina guretzat kasualitatez sortutako zerbait izan denez, berez atera zaigu; zerbait naturala izan da.

Berria 2021/06/01

MIRARI MARTIARENA IRAOLA

Orokorrean eta salbuespenak salbuespen, infernuko hauspoak ez du leku askorik irratietan. Folklorearekin eta baserritar jantziekin lotzen da, baina izan da eta bada oraindik ere indartsu dagoen tresna. Edozein musika estilorekin uztartu litekeen musika tresna dela erakutsi digute, gure belarrien gozagarri. Erromeriak faltan botatzen ditugun garai honetan, irtenbide ona izan liteke Ataria irratiaren Hauspo artean entzutea, eta konturatuko zarete soinu txikia, askok uste dutenaren kontra, bizirik dagoela.

Berria 2021/06/13

KOMIKI LIBURUA

SASI ARTEAN ELGETA



Euskal Herriko Trikitixa Elkarte eta Ikastolen Elkarte 2018az geroztik elkarlanean aritu dira *Sasi artean Elgeta* komiki atalak Xabiroi aldizkarian plazaratzen. 2021eko udaberrian azken atala argitaraturik, nahi duenak esku artean izan dezake atal guztiak batuta, komiki liburu osoa. Koldo Izagirreren gidoiarekin, Dani Fanoren marrazkiekin eta Garluken koloreekin argitaratu da lan berria. Irailaren 29an aurkeztu da Donostiako Elkar Aretoan.

DISKO BERRIA

AMAK



Lau emakume, lau ama eta lau trikitilari. Duela bi hamarkada ezagutu genituen eta orain berriz ere elkartu eta diskoa kaleratu dute. Amatasuna ardatz hartuta, trikiti doinuek beste zentzu bat hartu dute AMAKen eskuetan. 8 abestiz osatutako diskoa, Aitor Saizar eta Xabi Solanorekin grabatu dute eta Solanok ekoizle lanak egin ditu. Nahiz eta zuzeneko kontzertuetan Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kristina Solano ibiliko diren, diskoaren grabaketan Arkaitz Miner, Txus Aranburu, Zigor DZ eta Arkaitz Bastarrika musikariek ere parte hartu dute.

DISKO BERRIA

UNIDAD ALAVESA. MADE IN GERMANY



Made in Germany, 8 abesti eta estilo anitzeko diskoa kaleratu du Unidad Alavesa taldeak. Aitor Artola abeslari eta gitarrarekin, Gurutz Bikuña gitarrarekin, Iker Arza baxuarekin, Unai Munoate baterian eta Eneko Dorronsoro soinu txikia, gitarra eta saxoarekin entzun daitezke taldearen lan berrian. Beasaingo Pottoko estudioan grabatu dute.



Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolatutako Trikitixa Topaketa eta Udaleku arrakastatsuak

📍 Asteasu

📅 Ekainak 25-30

Asteasuko Otabardi Aterpetxean pasa dute ekainaren bukaera hainbat gaztetxok. Bertaratutako gazteei eskaini zaizkien ikastaroetan irakasle izan dira Maixa Lizarribar, Mikel Ur-dangarin, Aritz Alustiza eta Iosu Arrizabalaga Izer. Ikastaroan ikasitakoa praktikan jarritz, Topaketa eta Udalekuan gidari izan diren Manex Torrealдай, Beñat Arruti eta Leire Etxezarretak lagunduta, gazteek beraiek sortu eta grabatutako kantua argitaratuta dago Trikitixa Elkartearen YouTubeko kanalean (Topaketa eta Udalekua 2021).



Argazkia: Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak

Zarautz eta Zestoako txapelketekin hasi da iraila

📍 Zarautz eta Zestoa

📅 Irailak 1 eta irailak 5

Aurten berriz ere ospatu da Zarauzko trikitilari gazteen txapelketa. XLI. edizioako txapeldunak Irati Arzelus eta Mirari Plazaola izan dira eta bigarren postua Araitx Etxanizek eta Enaitz Alberdik lortu dute. Gainerako parte-hartzaileak Ianire Segurola eta Elaia Diaz, Maitane Iturriotz eta Eider Amenabar, Ane Urbietta eta Nerea Lopetegi, eta Eider Garro eta Araitx Elizalde izan dira. Modelo aretoa goraino bete da.

Aste baten barruan bigarren txapelketa bat ere izan da gaztetxoentzat; Zestoako X. Trikiti txapelketa. Garaile, Maitane Iturriotz eta Eider Amenabar izan dira, bigarren postuan Irati Arcelus eta Mirari Plazaola, eta hirugarren Araitx Etxaniz eta Enaitz Alberdi. Ane Urbietta eta Nerea Lopetegi, Ianire Segurola eta Elaia Diaz, Iraia Korta eta Udane Ostolaza, eta Eider Garro eta Araitx Elizalde ere izan da lehian.



Argazkiak: Ibon Errazu. Zarautz eta Zestoako parte hartzaileak



ASIER GOZATEGI

Talde izaera modu naturalean sortu zen. Bai-na gogoan dut kontrako iritzi ugari ere sortu zirela. Trikitiaren munduko jendeak esaten zuen hori ez zela trikitia; baina urtetik urtera erakutsi da posible dela musika tresna hori bestelako instrumentuekin nahastea. Lortutako arrakasta sekulako ezustekoa izan zen, eta, hala, abestiak trikitia entzuten ez zen tokietara iristea lortu genuen.

Berria 2021/08/24

MAIXA LIZARRIBAR

Emakumezko erreferentziarik izan al zenuen?

Bai, nik bi emakume ezagutu nituen plazan jotzen. Ondo gogoan dut, Mamen Maltzeta panderoa jotzen ikusi nuen hura. Sei urte nituen artean eta txapelketa batean izan zen, bere aita esku soinu txikia jotzen eta bera panderoa. Niri horrek zer pentsatua eman zidan eta etxean esan nien: «Niri esaten didazue hau ez dela nire (emakumeen) mundua eta hor badago neska bat jotzen. Eta erantzuna izan zen: «Bai baina bere aitarekin ari da...». Soinua jotzen ezagutu nuen lehenengo emakumea berriz, Miren Etxaniz izan zen, Bingen bikote pandero jotzailearekin, txapelketa batean izan zen hau ere.

Tolosaldeko Ataria 2021/09/05

IRATI ARTZELUS

Nola prestatzen da txapelketa bat?

Denbora asko ematen dugu txapelketa hauetarako prestatzen. Abestiak irakasleekin batera ikasten ditugun arren, gero lan asko egin beharra izaten dugu etxean, gure kabuz nahiz bikotearekin, pandero-jolearekin kasu honetan. Lehendabizi abestiak buruz ikasi eta guztia bere lekuan jarri beharra izaten dut, eta behin hori egindakoan nire lana pandero-jolearekin partekatu eta bere moldaketak non eta nola sartuko diren zehazten dugu; lan handia egin behar da azken emaitza lortu arte. Pieza aldetik, txapelketetarako teknikoki zailagoak diren abestiak ikasi ohi ditugu, esfortzu handiagoa eskatzen dutenak.

Goiberri 2021/09/17



DISKO BERRIA

KHERAU. Phrolck



3 urteko prozesu luzearen ondoren, iraillean kaleratu du *Phrolck* (Pop+Folk+Rock estiloak biltzen dituen) diskoa Kherau taldeak. 16 kantuk osatu dute lana eta country, blues eta gospel kutsua nabaria da. Parte hartu duten musikariak, Ibon Ordóñez (ahots nagusia, koroak, kitarra akustikoak, slide guitar, 12 sokako kitarra, mandolina, bouzoukia eta armonika), Eneritz Gorritxategi (soinu txikia eta koroak), Iker Lope de Bergara (haize tresnak eta koroak), Gaizka Andollo (perkusioak) eta Ekain Alzola (baxu elektrikoa eta kontrabaxua) izan dira. Hauez gain, hainbat kolaboratzaile izan dituzte diskoan. Grabazioa eta masterizazioa Unai Mimenzak egin ditu.



KONTZERTU, ERROMERIA ETA DANTZA TALDEEK PANDEMIAREN ONDORIO ZUZENAK JASAN DITUZTE

2021eko uda ez da arrunta izan musikari gehienentzat. Trikitilari eta pandero-jole askok ere pairatu dute pandemiaren eragina beraien udako jardunean. Ez dira normaltasunera itzuli udan ikusi ohi diren kontzertu, gauetako berbena edo erromeriak. Trikitilari bat baino gehiagorentzat aldaketa ekarri du honek. Batzuentzat erabateko geldialdia, beste batzuentzat beraien formatua birmoldatu eta proiektu berriak plazaratzea. Xabi Arakama, Itsaso Elizagoien, Arkaitz Mindegia eta Oskar Estanga udan geratu gabe jotzen ibiltzen ziren soinu-joleak dira.

Xabi 9 urterekin hasi zen trikitixa ikasten. Lastur hasi zen auzo eta inguruko herrietara ateratzen arreba panderoarekin lagun zuela. 20 bat urterekin Trikitizio taldea sortu zuen eta bertan ibili zen 15 urtez, 1400 emanaldi inguru eskainiz. Arakajun, Ze Esatek!, Obrint Pas eta Xaiko taldeetan ere ikusi izan dugu Xabi, hala ere, gaur egun, Boikot taldean jarraitzen du, punk-rock nortasuna duen talde ezagunean.

Itsaso Elizagoienek, Elizagoien Ahizpak erromeria bikotearen %50a bezala aurkeztu du bere burua. Carlos Nuñezen taldeko soinu-jolea ere bada 2015az geroztik.

Arkaitz Mindegia, Trikidantz erromeria talde nafarrean dabilen trikitilaria da. 15 urte zituenean sortu zuen taldea Ainara bere arrebarekin eta 24 urteren ondoren, Arkaitz bera da gaur egun, orduko musikarietatik taldean jarraitzen duen bakarra.

Oskar Estanga berriz, gaur egun Iratzar taldeko trikitilaria da. Aurretik, hainbat talde profesionalean ibilitako ibilbide luzeko musikariek 2012. urtean sortutako proiektua da Iratzar.

Aurtengo uda berezia izan da, ordea. Bakoitzaren egoera eta aurrera eraman dituzten proiektuak hobeto ezagutuko ditugu jarraian.

Zenbat denbora oholtzetara igo gabe?

Xabi Arakama: «Pandemiagatik ezarri ziguten konfinamenduaren aurreko azken kontzertua, 2020ko otsailaren 22an eskaini genuen Boikot-ekin. 2021eko maiatzaren 16a arte ez ginen berriro jendaurrera agertu».

Itsaso Elizagoien: «Aspaldiko partez, azaroaren 7an igo nintzen Arizterrazuko oholtzara ahizparekin. Pandemia garaian ez dugu erromeriarik eskaintzerik izan, erabat ezinezkoa baitzen erromeria giroa bizi izan dugun osasun egoerarekin uztartzea. Hala ere, suertez, ez naiz geldirik egon. Carlos Nuñezen taldeak eskaintzen dituen kontzertuek bertzelako formatua dute. Jendea eserita egoten da emanaldia ikusten eta pandemia garaian beharrezko distantzia eta neurriak hartuz kontzertu hauek aitzinera atera ahal izan dira».

Arkaitz Mindegia: «Pandemiaren ondorioz 2020an eszenatoki guti zapaldu genituen, baina aurtengo udan herri batzuk bisitatzeko aukera izan dugu».

Oskar Estanga: «Urtebete eta hiru hilabete igaro genituen oholtzara igo gabe. Luzeegi gauza onerako. Arrasaten, 2020eko inauterietan eman genuen pandemia aurreko azken kontzertua. Egoera berrira egokituta, Anoetan izan genuen aukera berriro jende aurrera itzultzeko aukera, ekainaren azken asteburuan».

Nolako saioak eskaintzen zenituzten? Egoera hau dela eta formatu aldaketa edo lanketa berriren bat egin duzue gaur egungo neurrietara moldatu eta jende aurrera ateratzeko?

X.A: «Pandemia iritsi aurretik Boikot-ekin estatuko musika jaialdi edo festibal handienetan jotzen genuen, Viñarock, Pintorro, Rabo-lagartija, Cabo de Plata... milaka pertsona el-



kartzen dira jaialdi hauetan, 20.000 ingurutik 60.000 arte. Gure kontzertuen iraupena 70 minutukoa izaten zen rock jaialdi horietan eta 90 minutukoa festa handietan. Denbora osoa izugarritzko erritmoarekin jotzen egoteko, fisikoki ondo prestatuta egotea derrigorrezkoa da. Egoera berrira moldatuz, 15 kontzertu inguru eskaini ditugu, antzokietan gehienak eta beste batzuk leku irekietan, beti ere ikuslegoa aulkietan eserita egon delarik. Alde positiboa, berriz oholtzan elkarrekin jotzearena izan da, baina alde negatiboa ere eduki dugu: jende gutxi agertu da gure emanaldi mota honetara, gure estiloa eta jarrera ez delako naturala modu honetan.»

I.E: «Erromeriei dagokionez, bizpahiru orduko saioak normalean herri edo auzoetako plazetan. Jendea dantzaraztea da gure helburua. Erromeriak eskaintzea ezinezkoa zenez, egoera berri honetara moldatuta sortu zen *Arizterrazu Zuzenean* ekimena. Itxialdi gogorra zegoen garai hartan erromeria zaleengana iristeko erraminta izan zen. Ordubeteko erromeriak egin ditugu, igandero, sare sozialen bidez, erromeria gosea ase asmoz. Trikitilari eta pandero-joleek borondate eta ahalegin handia egin dute, eta ikusleen erantzuna ere bikaina izan da. Carlosekin, berriz, kontzertuak ez dira horrenbeste aldatu. Zutik edo eserita ikusi eta entzuteko emanaldiak dira, eta alde horretatik abantaila izan da pandemian ere berdina eginen jarraitu ahal izan dugulako».

O.E: «Normalean 3 ordu eta erdiko erromeria eskaintzen genuen pandemia aurretik, tartean ordu erdiko atsedenaldia egiten genuelarik. Arratsaldeak eta gauak girotzeko, erromeria kutsuko emanaldia eskaintzen dugu plaza-talde formatuan. Kaxianotik hasi, Berri Txarrak taldearen abestietatik pasa eta Aretha Fran-

klings-en errepertorioko klasikotara iritsi arte. Proiektu berri baten sorrera ekarri du neurri berrietara egokitzeak. Egoera irreal hura luzerako izango zela jabetu ginenean, zerbait egin beharrean geundela erabaki genuen. Euskal ondarea berreskuratu eta euskal kulturari bultzada ematea otu zitzaigun eta horrela sortu zen Iratzar kantari. Guztien bihotzean dauden abesti klasikoak moldatu genituen, eta jendeak gurekin abes zezan, euskarri digitalak erabiliz letrak musikarekin sinkronizatzea otu zitzaigun; letrak telebista handi batean jarri eta publikoak gurekin ekitaldia osatzea eta gozatzea. Hala ere, ez dugu galdu publikoarekin genuen harreman estua. Gure ikuskizunean, letrak digitalki proiektatuz, jendea parte hartzera gonbidatu dugu eta dantzarekin lortzen genuena, hitzekin lortu dugu. Mugimenduarekin izan beharrean, ahotsarekin elkar goxatzea lortu dugu».

Zerbait positiborik ateratzeko aukera izan duzue egoera honetatik?

X.A: «Ba egia esan, hainbeste urte zuzenekoak etengabe ematen aritu eta gero, behar beharrezkoa genuen atsedenaldia. Derrigortutako atsedenaldia, baina oso ondo etorri zaiguna. Oso positiboa izan da alde horretatik. Alabarekin, gurasoekin eta familiarekin egon eta gozatu ahal izateko. Urtero, udaberrian hasi eta udazkenara arte milaka kilometro egiten ditut kontzertuetan jotzeko eta egoera honi esker atsedeen bat hartzeko aukera izan dut, beste modu batera hartuko ez nuen».

A.M: «Positibo bakarra leku berriak ezagutu eta gure diskoa lau haizetara zabaltzea. Egoera gogor hauetan jendeari alaitasun pixka bat ematea ere polita izan da».



O.E: «Proiektu berri bat martxan jartzeko bul-tzada eta elkar hobekiago ezagutzeko aukera eman digu. Une zailak elkarrekin igaro izanak gehiago elkartu gaitu. Profesional bezala hasi ginen, elkar gehiegi ezagutu gabe eta lagun onak izaten bukatu dugu».

Agian berriro jende aurrera ez itzultzea ere planteatu duzue?

X.A: «Ez. Hori beti oso argi izan dugu. Atsedena-bat bezala hartu dugu derrigorrezko gel-diune hau. Ez dugu planteatu, ezta pentsatu ere betiko gelditzerik. Gorputzak irauten duen artean eta jendeak onartzen gaituen bitartean, hortxe jarraituko dugu».

I.E: «Momentuz ez da nire plan hurbiletan sar-tzen. Polita izan da itzulera. Gehienbat lagun zaharrekin elkartzeko balio izan digu. Hori da guri gustatzen zaiguna eta horretan jarraitu nahi dugu».

A.M: «Ez! Ikusle eta zaleen beharra daukagu! Segi dezagun han eta hemen trikiti, pandero doinuak zabaltzen, jendearen belarri eta gor-putzak alaitzeko. Argi gelditu dadila kultura segurua dela».

O.E: «Sekula ez, ezta pentsatu ere! Gure pasioa da musika. Ezingo genuke gure bizitza jende aurrera itzuli gabe irudikatu. Oraindik konkis-tatzeko plaza asko geratzen zaizkigu eta gogo-rik ez zaigu falta. Lajak eta Landakandak zioten moduan, gu gera tristura denak uxatu nahi di-tugunak».

Argazkiak: XABI ARAKAMA (Angel Delgado), ITSASO ELIZAGOIEN (Juan Carlos Gonzalez), ARKAITZ MINDEGIA (Peio), OSKAR ESTANGA (Iratzar taldea).





UDAZKENA



Ramon Zubizarreta *Landakanda* pandero-jolea hil da

📍 Azkoitia

📅 Irailak 25

89 urte betetzear zela, zendu da Ramon Zubizarreta Landakanda pandero-jolea. 1932an jaio zen Ramon Landakanda baserrian eta handik hartu zuen izen artistikoa. 18 urterekin jo zuen lehen aldiz jendaurrean panderoa eta gerora maisu bilakatu zen trikiti munduan. Pikuarekin, Zendoiarekin, Auntxarekin, Epelderekin, Maltzetarekin eta Eleuterio Tapiarekin jo izan zuen lehen urteetan, baina Iñaki Garmendia Laja-rekin lortu zuen inorekin baino oihartzun handiagoa. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak *Landakanda, panderoaren erregea* biografia liburua kaleratu zuen 2011. urtean, Soinuaren liburutegia bildumaren barruan.



Argazkia: Ibon Errazu

Oxabi erromeria taldearen itzulera

📍 Galdakao

📅 Azaroa

Oxabi erromeria taldeak bere itzulera iragarri eta oholtza gainean eman dio hasiera etapa berri honi, abenduan 3 kontzertu eskainiz. Oxabi 2006. urtean jaioetako euskarazko erromeria taldea da. Jon Eguskiza, Aritz Uriarte eta Jon Gomez musikari galdakoztarrek sortu zuten, beraien inguruan erromeria talde euskaldun eta gazte baten falta sumatzen zutelako. 2011an aldaketa batzuk jasan zituen taldeak eta Mikel Urrutia (bateria), Markel Arevalo (baxua), John Learreta (gitarra), Gaizka Jimenez (tronpeta) eta Eneko Arraibi (saxofoia) batu ziren proiektura. Orain berriz, kide berriekin eta hainbat berrikuntzekin dator taldea: Gontzal Carrasco (soinu txikia), Xabi Bengoa (gitarra), Jurgi Iraola (tronboia) eta Jonmi Garcia (bateria).



Argazkia: Oxabi taldea

Santa Ana Antzokia goraino beteta, Oñatiko XIII. Trikiti jaialdian

📍 Oñati
📅 Urriak 23

Lizargarate Trikitixa Elkartek antolatuta, beste urte batez goraino bete da Santa Ana Antzokia. Oñatiko musika eskolako ikasleak; Ander eta Xabi Malbadi; Mirari, Aintzane, Miren eta Agur; Leire Etxezarreta eta Eider Garro; Xabi Arakama, Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañaga; Maixa, Irati eta Eneritz; eta Itsaso eta Izer, ilusioz igo ziren oholtza gainera, mimo handiz prestatua zeukatena ikusleei eskaintzera. Jaialdiaren ondoren trikipoteoa eta afaria egin zuten.

Argazkiak: Ibon Errazu





IOSU ARRIZABALAGA IZER

Azken urteotan, urrian hasi izan dugu Arizterrazuko denboraldia, baina tradizionalki, Santu Guztien Egunean egiten zen sasoiko aurreneko erronomia Andatza auzoan. Aurten, aspaldian ez bezala, azaroaren 1ean emango zaie hasiera erromeriei. Tradizioari eta mundu zaharrari estuki lotutako ospakizuna izanik, halako bitxikeriek ere beren balioa dute. (...) Guri plazer handia ematen digu Andatzen egiten den ospakizunak, eta hori hilabete luzez galarrizta egon izana gogorra izan da; bai trikitilariarentzat, baita han biltzen den jendearentzat ere.

Urola Kostako Hitza 2021/10/28

JULEN ALONSO

Nondik dator diskoaren izenburua?

Abesti baten izenburua ere bada. Hau esaten dut kantuan: «Izarretan sentitzen nauzu, oinak airean, eskuetan bihotza, zure haizea arnastu nahi dut...». Pertsona bati zuzendutako hitzak direla eman dezake, baina instrumentu bati ari naiz. Izan ere, objektu hutsetik harago, instrumentuek bizia dutela pentsatzea gustatu izan zait betidanik eta hortik atera dut ideia.

Karkara 2021/12/16



EUSKAL HERRIKO
TRIKITIXA ELKARTEA

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak hainbat proiektu burututa amaitu du urtea

📍 Azpeitia

🕒 Abendua

DIGITALIZAZIOAREN EREMUAN URRATSAK EMATEN ARI DA

1972an Usurbilen lehen aldiz trikitilariak elkartu eta hazia erein zutenetik mende erdia betetzear dagoen honetan, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak 2022ari begirako berrikuntzekin abiatu da.

EHTek marka eta webgune berria argitaratu du. Webgune berri honen etorkizuneko proiektua da trikitixaren wikipedia bere barnean hartzea, trikitixarekin zerikusia duen dokumentazioaren bilgunea, alegia.

IRUDI berria. Iker Torres Rekondo diseinatzailearen eskutik, zenbait hilabetetako lanketaren ondoren sortutako logoak, EHTeren ibilbide berria irudikatu nahi du. Trikitixak bere baitan dituen soinu-txiki eta panderoa elkarrekin uztartuz, mugimendua eta dinamismoa eman dio Ikerrek EHTeren izaera ezin hobeto erakutsiz; nondik gatozen ahaztu gabe, nora goazen etengabe eguneratuz.

WEBGUNEAREN itxuraldaketa. Webgune erraz eta intuitiboagoa aurkezten du lantza Interaktiboak, atal berriak erantsita eta gaur egungo euskarriarako prestatua. Etorkizuneko proiektua da, gainera, orain arte trikitixaren entziklopedia izan den trikimailua edo soinuaren hotsa atala Trikipedia bihurtzea, eguneratzea eta etengabe elikatzea.

KOLPEKA (@kolpeka_) saio berria. Gazteek eta gazteentzat sorturik, Trikitixa Elkartearen sare sozialetan saio berria argitara eman da. 2021ean zehar, EHTeren ekimenez eta boskote paregabe baten gidaritzapean, sei bideo aurkeztu dira, trikitixaren protagonista ezinbestekoak gonbidaturik.

IRAILAK

21
ABENDUAK
21

HUNTZA

Ezin ezer espero



Huntza taldeak bere hirugarren lan luzea aurkeztu du azaroaren 19an: *Ezin ezer espero*. Zortzi abestik osatzen dute diskoa, eta Julieta Venegas eta Doctor Prats bezalako artisten kolaborazioak aurki daitezke. Ohiko trikitixa doinuak mantentzeaz gain, orain arte entzun ezizkiegun doinu batzuekin ere ausartu dira.

JOSEBA TAPIA

Egon edo ez egon



Joseba Tapiaren bakarkako bederatzigarren lana da *Egon edo ez egon*. Kantu berriak dira guztiak, Koldo Izagirreraren testuekin egin-dakoak. Et Incarnatus orkestrak ere parte hartu du diskoko zenbait kantuetara harizko sonoritatea eta dinamika ekarriz. Talde berria 2019an aurkeztu zuen zuzeneko disko baten bidez eta geroztik zuzenekoetan harrera ezin hobea izan du. Diskoko kanten moldaketa guztiak Joseba Tapiak egin ditu eta proposamen musikal zein artistiko berria dakar. Garate Estudioetan, Kaki Arkarazorekin grabatutako diskoa da.

JULEN ALONSO

Eskuetan bihotza



Bere bigarren diskoa kaleratu du Julen Alonso oriotarrak. Lehenengo diskoaren ukitua du bigarrenengo honek ere, baina pianoak eta sokek beren presentzia dute. Iker Telleria perkusioan, Ander Ederra gitarrekin, Joanes Ederra baxua eta kontrabaxuarekin, Xabier Zeberio sokekin eta Eneritz Aulestia ahotsean lagun duela ondu du bere lan berria Julenek. Diskoa Tirikitrauki Musika Dendan eta www.julenalonso.eus helbidean dago salgai.

KORRONTZI

Aita mari, bidaia musikala urrutiko uretara



Korrontzi Aita Marin ontziratu da Mediterraneora bidean. Agus Barandiaranek garbi du, bidaia musikala abiarazten dutela urrutiko uretara, ontzigainean beraien trikitixa doinu jarritz. Portu bakoitzean istorioak eta doinuak bildu dituzte, baita tradizioak eta kulturak ere, eta itxaropenez beteta dau den itsasontziaren sokak luzatzen dizkiete bizitza berri baten bila datozeinei. Aita Mari erreskate-ontziari laguntzeko ongintzazko lana da.

MAIDER MARTINEAU

Adar bohada



Adar bikotea, Maider Martineau eta Arnaud Bibonnek osatzen duten mugaz gaindiko musikari bikotea da. Trikitixa, panderoa, alboka, boha, esku soinu, zapetak, caremère eta kantua nahasten dituzte beraien lan berrian (Bohada). Maider, euskal musikan aditua da, trikitixa, bertako akordeoi diatonikoa eta panderoarekin paraleloan ikasiak, horixe da bere zaletasun handiena. Disko honetan alboek garrantzi handia dute: Albokak, poltsikorik gabeko euskal gaita eta Arnauden gaitekin soinu-dun zubi berezia eraiki baitute.

McOnak

Bitakora



Azaroaren 25ean kaleratu zuen McOnak taldeak bere bosgarren diskoa. Gizartean pil-pilean dauden gaien inguruko auto kritika eta barruko korapiloen hausnarketa egiten saiatu dira Maren Seijo (bateria), Koldo Sanchez (baxua), Kemen Atxurra (kitarra), Beñat Zaton (soinu-jolea), Joseba Iturraspe (kitarra akustikoa), eta Irati Irizar (biolina) taldekideak. Bira bat eginez hasiko dute 2022a.



MIREN ETA ROBERTO ETXEBARRIA

Koplak airean eta doinuak koloretan



Koplak airean, iaz kaleratutako *Hamaikatsu koplak pandero baten konture!* izeneko lanaren luzapena da, Robertok Miren alaba alboan duela kaleratutakoa. Soinu txikiaren ohiko doinu eta erritmoak bai, baina bestelakoak ere badaude lan honetan: transmisioa, Robertok Mirenen ahots eta panderoan islatzen duena era esplizituan; eta zabalkunde lana, koplak zaharrak ezagutzera ematen direlako. Kasu gehienetan, Jabier Kaltzakortak jasotakoak (Labayru) dira eta gainontzekoak Robertok osatutakoak. Soinu txikiarekin batera, aho-tsek eta panderoak trataera berezia eta protagonismoa dute, eta gitarra, kontrabaxua, mandolina eta haizezko tresnak lagunduta agertzen dira. *Doinuak koloretan*, Roberto Etxebarriaren hiru doinuren partiturak, bilduma osatuko duen aurreneko sorta dira. Musikak eta irudiak bat egiten dute lan honetan, melodia zein koplak Iñigo Bidetxea (@bidewaysickart) sortzailearen ilustrazioetan islatzen baitira.

OIHAN ARIZALA

Goiari



Nafarroako sei musikari gazteren lehenengo diskoa da *Goiari*. Oihan Arizala trikitilaria gidari, 8 abestiz osatutako lana kalera-tu dute. Hainbat musikari lagun izan ditu Oihanek proiektu berriari: Sebastian Catena gitarrekin, Aitor Herbon baxuarekin, Amaia Oñate bibolinarekin, Urko Milagro bateriarekin eta Maitane Gamazo, Urko eta Oihan beraren ahotsak. Aurkezpen kontzerturik aurreikusita ez badago ere, urte berriarekin batera Nafarroko VIII. Trikiti jaialdian izango dute lehenengo zita.

PATRIK LARRALDE

Zirimiri



Larre Alde trikitilariak plazaz plaza ibili ohi dira trikiti eta panderoarekin. Zirimiri bezala, urte askotan, haien piezek goxoki busti dute herriko giroa. Lan berri honetan, 12 kantu ezagunenak bildu dituzte bi anaiek. Aitzinetik, *Bodarin*, *Lurraldetik*, eta *Males-truke* lanak eginak dituzte, baina 2008tik etzen bi anaiei disko berriarik ezagutzen. Trikitixa Elkar-teak kaleratutako Geure Kolkotik 2016 diskoan ere parte hartu zuten. Abenduaren 5ean Durangoko azokan aurkeztu dute Zirimiri.

XABI ABURRUZAGA

Aurrez aurre



Xabi Aburrizaga soinu-jolearen *Aurrez Aurre* diskoa seigarrena da, eta estreinakoa zuzenean. Hogei urteko musika ibilbidearen lekukotza da, abesti zaharrei egindako moldaketa berriak dakartza, amestutako musika festa erraldoia zuzenekoan antolatu du, lagun handiekin taula gainera igo da, hainbat laguntzaile-gonbidatuekin alimaleko big-band-a sortu du. Azaroaren 26an aurkeztu du diskoa Bilboko Campos Eliseos Antzokian.

ZALLEK

Karakorum



Erokomeri plaza taldea desegin zenean sortu zen Zallek. Unai Olaizolak (bajua), Josu Furundarenak (kitarra), Asier Aizpuruk (bateria) eta Martin Altunak (soinu txikia) osatzen dute taldea. Musika instrumentala egin dute beraien lehen diskoan. Asiako Karakorum mendilerroaren izena eman diote lan berriari, taldeak orain arte egin duen bidea ondo irudikatzen duelakoan. Azaroaren 12an aurkeztu dute diskoa Azpeitiko gaztetxean.

ALTZAPORRU

2021

URTEKARIA

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA

